Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA
FACULTAD DE ECONOMÍA Y EMPRESA

# Albisteak bidaltzea Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Buletinerako (Egoitza)

Unibertsitateko kideentzat interesgarria izan daitekeen albisteren bat baduzu, ondoren agertzen den helbidera bidal dezakezu Fakultateko Buletinean (Egoitza) argitaratua izan dadin. Hauxe da helbidea:

vicedecanato.calidadinnovacion.fee-sarriko@ehu.eus

## Albisteak idazteko arauak

1- **Testuak originalak izan behar dira** eta aurretik argitaratu gabeak (adibidez, Campusan).
2- Testuak **150 eta 500 hitz arteko luzera izango du.** Euskaraz edo gaztelaniaz idatzita egon daiteke, baina eskertuko genuke bi hizkuntzetan bidaltzea.
3- Gaztelaniazko testuetarako **EHUSans** tipografia erabili beharko duzu, eta euskarazkoetarako **EHUSerif** tipografia. **Letra tamaina 12** izan behar da, eta **lerroartea 1,5.**
4- **Erabili letra lodia** albistean agertzen diren izen propioetarako eta nabarmendu nahi dituzun kontzeptuetarako. Testuak 300 hitz baino gehiago baditu, aukeratu esaldi adierazgarri bat, "nabarmendua" egin ahal izateko.
5- **Nahi dituzun estekak sar ditzakezu,** albistea osatzen duten webgune, bideo edo multimedia materialetara eramaten dutenak. Horretarako, erabili hiperestekaren funtzioa.
6- Jarri **izenburu labur eta erakargarri bat,** albistea irakurtzeko gogoa piztuko duena. Albisteak sari, aitorpen edo izendapen baten berri ematen badu, jarri lehenengo eta behin sarituaren izena.
7- **Argazki bat** eransten baduzu, "jpg" formatua izan behar du eta kalitatezkoa izan.
8- Buletin berria **ataletan antolatuta** dago. Adierazi zeinetan nahi duzun argitaratzea albistea. "In Memoriam", buletina argitaratzen den urtean jardunean dauden irakasleentzat dira.

Kalitate, Hezkuntza Berrikuntza eta Ekintzailetzako Dekanordetza